

IRAK. Liga Arabiarrek dioenez, ezein herrialde edo soldadu arabiarrek ez du parte hartuko Iraken kontrako erasoan

Husseinen agintea luzatzeari buruzko erreferenduma egingo dute gaur

AEBe «fermuki eta bizkor» jokatu behar dute Bagdaden kontra, Washingtonen ustez

Erredakzioa | DONOSTIA

Irakeko presidente Saddam Husseinek boterean beste zazpi urtez jarraitzeko sostengua duenetz jakiteko erreferenduma deitu du gaurko. Bagdaden dauden diplomatikoen arabera, oso litekeena da Husseinek gehiengo absolutuz irabaztea kontsulta.

Gaur 11 milioi eta erdi irakiarrek baino gehiagok erabakiko dute Husseinek beste zazpi urtez presidente segitu behar duen ala ez. Husseinek 23 urte daramatza Irakeko gobernuburu. «Subiranotasun nazionalaren ala atzerriko inperialismoarekiko morrontzaren arteko aukera»: horra gobernuak galdeketa aurkezteko era.

Adituen idurikotz, erreferendumerako deiak aurre egiten die boterea bere kabuz laga dezan AEB Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak eginiko presioei. Mendealdeko diplomatikoen zat, baliteke Irakeko presidentek jasoko duen babes 1995eko erreferendumekoa baino handiagoa izatea, alegia, bozen %99,96 gainditzea. Oposizioa kide batek «txantxa» irizti zion atzo erreferendumari.

AEBetako Defentsa idazkari Donald Rumsfeldek diplomaziaren porrota onartu zuen atzo *The New York Times* egunkarian, eta Iraken kontra fermuki eta bizkor jokatu behar dutela AEBek. Rumsfelden esanetan, «buruzagi politikoez ez dute hau edo bestea egingo ez duten hitza eman behar; zenbait ekin-tza egingo ez direla agintzeak etsaiaren planak errazten ditu». Orobat, operazio militar baten hasieran herritarren laguntza ahula bada agintariek babes lortzeko beren «kapital politiko» erabili behar dutela azaldu zuen, eta zera gaineratu: «Hildakoak izateko arriskua badago hori hasieratik aitortu behar da, operazio bat modu aseptikoan, gastu eta hildako gutxiarekin egin daitekeela ez dezaten pentsatu herritarrek».

Arma ikuskatzaileak Ukrainan

Irakeko Herriko Asanbleako —Parlamentua— presidente

Sadun Hamadik herenegun berretsi zuenez, Irak prest dago NBE Nazio Batuen arma ikuskatzaileak hartzeko eta haiekin elkarlanean aritzeko. Hamadik AEBei egotzi zien ustez Irakek duen handizka suntsitzeko armen biltegiaren gainean gezur-rrakesan izana. «Ikuskatzaileek ezingo dute suntsiketa masiborako armak kausitu, duela bi urte ikusi zutenek, Irakek ez dituelakotz». NBeko ikuskatzaileek 1998ko abenduaren 16an utzi



JEROME DELAY / AP

Emakume irakiar batzuk Irakeko presidente Saddam Hussein aldeko mitin batean, atzo, Bagdaden.

zuten Bagdad, AEBetako eta Erresuma Batuko Armadek *Basmortuko Azeria* operazioarekin Bagdad bonbardatu aitzin.

Atzo AEBetako eta Erresuma Batuko arma ikuskatzaileak

Ukrainan hasi ziren lanean, herrialde honek Iraki Kolchuga radarrak saldu dizkionetz argitzeko. Washingtonek dio NBek Iraki ezarri bahimendua urratu zuela Ukrainak.

Liga Arabiarrek atzo ziurtatu zuen bere kideek ez dutela parte hartuko Iraken kontrako eraso batean. «Gure jarrera argi dago; ezein herrialdek edo soldaduk ez du parte hartuko».

Pentsa ezazu milaka lagun ari direla zutaz eta zure autoaz arduratzen.



Automobila
Osasuna
Bizitza
Stripuak
Etxe
Aurrezkie
Osasuna



Euskadiko Kutxa Taldekoa

LAGUN ARO
SEGUROS - ASEGURUAK
Beti zugan pentsatzen